

Aldaketak Donostiako airearen kalitatean

Joan den igandean agindutako mugimendu murrizketek eragin zuzena dute hiriko airearen kalitatean. Ibilgailuen trafikoaren beherakadak, saltokien eta industria-jardueren itxierak eta zenbait lanen geldiarazteak aireko kutsatzaileen mailak murriztu dituzte.

Egoera hori dela-eta, hiriko airearen kalitatearen jarraipena egin daiteke, giza jarduera minimoko baldintzetan, eta hobekuntza-marjina potentziala zenbatetsi. Beraz, egoerak irauten duen bitartean jarraipena egin nahi da, denbora-tarte berarekin konparazio bat egiteko, murrizketa-neurriak indarrean jarri aurretik eta ondoren.

Lehen alderaketa martxoaren 10ean (asteartea) eta 17an (asteartea) neurtutako mailen artean egin da. Erabat berdinak ez izan arren, baldintza meteorologiko antzekoak (prezipitazioa, haizearen norabidea eta abiadura) zituztelako aukeratu dira egun horiek. Astelehenean izandako prezipitazioek ezinezkoa egiten dute martxoko bigarren eta higarren asteen arteko alderaketa.


Ezin da ondorio adierazgarrikerik atera bi egun bakarrik konparatzean, baina ondoren, hirian dauden sei neurketa-estazioetan behatutako datu interesgarri batzuk aipatzen dira.

Nitrogeno oxidoak

Nitrogeno dioxidoa (NO₂) ibilgailuen trafikoa iturri nagusi duen kutsatzailea da. Egindako jarraipenean ikusi da kutsatzaile hori ia erdira jaisten dela neurtzen den hiriko eremu guztietan.

Eguneko batez bestekoaren beherakada handiagoa da hiriaren erdigunean dauden trafikoa kontrolatzeko estazioetan (16 eta 14 µg/m³ Ategorrietan eta Eason, hurrenez hurren), baina gainerako estazioetan ere beherakada handia izan da. %53ra irizten da beherakada.

NO ₂	Añorga	Avenida Tolosa	Ategorrieta	Easo	Puio	Zubieta
Martxoak 10	25	24	35	39	24	19
Martxoak 17	13	13	19	25	15	9
Aldea	12	11	16	14	9	10
Murrizketaren ehunekoak	48	46	46	36	38	53





Partikulak


Partikulak hiri-inguruneetako kutsatzailerik kaltegarritzat jotzen dira gaur egun, NO₂ arekin batera. Giza jarduerak sortutakoak trafikotik, jarduera industrialetik, obretatik edo etxeke berogailuetatik datoz.

Zehazki, bi partikula-mota neurtzen dira airean, tamainaren arabera: 10 mikra baino lodiera txikiagoa dutenak (PM₁₀) eta 2,5 mikra baino lodiera txikiagoa dutenak (PM_{2,5}).

Lodiera handieneko partikulak (PM₁₀)

Horietan hautemandako beherakada nitrogeno dioxidoarena baino handiagoa da. %57rainoko murrizketak ahuteman dira. Kasu honetan, beherakada oso nabarmena antzeman da hiriaren erdialdeko eta Zubietako estazioetan, eta dezente txikiagoa gainerakoetan.

PM10	Añorga	Ategorrieta	Easo	Puio	Zubieta
Martxoak 10	16	38	37	21	23
Martxoak 17	12	18	18	14	10
Aldea	4	20	19	7	13
Murrizketaren ehunekoa	25	53	51	33	57




Beharakada horren arrazoa kutsatzaile hori sortzen duten iturri potentzialen aniztasuna da. Iturri horiek, behera egitean edo jarduera gelditzean, airearen kalitatean eta pertsonengan duten eragina nabarmen murrizten dute.

Lodiera txikieneko partikulak (PM_{2,5})

Partikula horien beherakada, osasunerako kaltegarrienak, ez da hain nabarmena izan, aurreko kutsatzaileekin alderatuta maila nahiko baxuetatik abiatzen baitzen. Hala, jaitsiera arina eta oso antzekoa izan da hiriko geltoki guztietan. Jaitsiera handiena %33koa izan da.

PM _{2,5}	Añorga	Avenida Tolosa	Ategorrieta	Puio	Zubieta
Martxoak 10	12	11	9	9	9
Martxoak 17	9	9	6	7	6
Aldea	3	2	3	2	3
Murrizketaren ehunekoa	25	18	33	22	33



Hurrengo asteetan hiriko airearen kalitateari buruzko datuak monitorizatzea izango da helburua, ondorioak atera eta konparazio fidagarriagoa egiteko.

Espero da ebaluazio horrek balioko duela hobetzeko tarte handiena duten kutsatzaileak identifikatzeko, hiriaren hondoko mailak zehazteko eta etorkizunean jarduteko neurriak diseinatzen laguntzeko.